

Fakultateak informazio gune berria ireki du, matrikulazio garaian laguntzeko

2007/06/26

Ekainaren 25etik aurrera, **HUHEZIK** informazio gune berria izango du **eraikin nagusiko klaustroan**, telefono gunearen parean. Informazio guneak **hainbat zerbitzu** eskainiko ditu:

- HUHEZIKo ikasketen gaineko informazioa ematea.
- Lehen aldiz datozen ikasleei matrikula egitea.
- Etorri berriei laguntza eskaintzea.

Informazio gunea zabalik egongo da **irailaren 15a arte** (abuztuan izan ezik), eta **Mireia Larrea** arduratuko da gune hori zuzentzeaz. Hiru ordenagailu eta inprimagailu bat izango dira ikasle berriek automatrikula egin dezaten.

